

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

**Foru Agindua 388/2021 urriaren 15koa, 2021ko "Blas de Arratibel" Artisautza Lehiaketari buruzko erabakia eman behar duen epaimahaia izendatzea onesten duena**

Irailaren 10ko 340/2021 Foru Aginduaren bidez, 2021ko "Blas Arratibel" Artisautza Lehiaketaren deialdia onartu zen.

Oinarri-arauetan xedatutakoari jarraituz, epaimahai kalifikatzailea izendatu behar da.

Horregatik, neure esku ditudan ahalmenez baliatuz, hauxe

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. 2021ko "Blas de Arratibel" Artisautza lehiaketako epaimahaia izendatzea. Hara nortzuk izango diren epaimahaiko kide:

- Sara Gonzalez de Aspuru, edo hark eskuordetzen duen pertsona.
- Elisabeth Palacios Negueruela, edo hark eskuordetzen duen pertsona.
- Xabier Santxotena Alsua, edo hark eskuordetzen duen pertsona.

Epaimahai horren idazkari lanetan Javier Durana Echazarra Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuko teknikariak jardungo du edo hark eskuordetzen duen pertsona.

Bigarrena. Guztiek jakin dezaten, foru agindu hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta honen aurka, herri administrazioen araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan dioenarekin bat etorritik, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke ebazpena eman duen organoari, ekintza hau argitaratu eta hurrengo egunetik hilabete pasatu baino lehen, edo, bestela, zuzenean aurkaratu daiteke Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, ekintza hau argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabete igaro baino lehen.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urriaren 15a

*Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*

**CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR**

*Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria*

**FELIPE GARCÍA MIRAVALLÉS**